
Bilera mota: Ezohiko Udal Osoko Bilkura.

Data: 2015-03-09 (astelehena)

Ordua: arratsaldeko 19:00etan.

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Erreferentzia: E -15-01

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko martxoaren 6a

Idazkari-kontuhartzailea

AZTERGAI

ZERRENDA

1.- Euskaltel enpresarekin adostutako hitzarmenak onartzea, bata 2010-07-28an sinatutako hitzarmena aldatzeko, eta bestea nodo optikoa lekuz aldatzeko.

2.- Alkatetzaren Dekretuaren bitartez onartutako honako erabaki hauek berrestea:

- 2015-02-23ko R-15-030 Alkatetzaren Ebazpena: Tasatu motako etxebizitza saltzeko baimena Idoia Redondo andreari.
- 2015-02-23ko R-15-031 Alkatetzaren Ebazpena: Tasatu motako etxebizitza saltzeko baimena Gorane Domínguez andreari.
- 2015-02-23ko R-15-032 Alkatetzaren Ebazpena: Tasatu motako etxebizitza saltzeko baimena Jokin Gabirondo jaunari.

.....//...

1-E-15-01: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

2015EKO MARTXOAREN 9KO EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Ezkio-Itsason, bi mila hamabosteko martxoaren bederatzian.

Egun honetako arratsaldeko 19:00ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta alde zaurretik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira honako Udalkide hauek:

- Jose Ignacio Etxezarreta Estala (EIK).
- Mikel Igartua Anduaga (EIK).
- Eneko Zabaleta Lasa (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiákez (EIK).
- Lourdes Lasa Arbilla (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz:

- Ruth Idiákez Alberdi (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzuz:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzailleak egiten du:

- Martín Iparragirre Mujika.

.....//...

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalari dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz.

.....//...

3-E-15-01: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

LEHEN PUNTUA:

EUSKALTEL ENPRESAREKIN ADOSTUTAKO HITZARMENAK ONARTZEA, BATA 2010-07-28AN SINATUTAKO HITZARMENA ALDATZEKO, ETA BESTEA NODO OPTIKOA LEKUZ ALDATZEKO.

Alkate jaunak adierazi du Herri-Eskolako Euskaltelen nodoaren arazoari buruz, dagokion negoziaketa izan ondoren azkenean lortu dela akordio bat Euskaltelekin.

Adostutako akordioa gauzatzeko, bi hitzarmen berri prestatu dira, bata 2010-07-28an sinatutako hitzarmena aldatzeko, eta bestea nodo optikoa lekuz aldatzeko, eta honako hauek dira beraien xehetasun nagusienak:

- Euskaltelek onartzen du nodoa gaur egungo lekutik udalaren jabetza publikoko hurbileko beste toki batera eramatea.
- Zuzenean Euskaltel arduratuko da nodoa lekuz aldatzeaz, eta, horretarako aurrekontuaren zenbatekoa 23.574,90 eurotan finkatzen da.
- Udalak konpromisoa hartzen du Euskaltelek lan hori egiteko behar duen kostu erreal eta eraginkorrean eta kudeaketa-gastuetan %50eko portzentajearen parte hartzea.
- Euskaltelek baimena eskatuko dio Udalari lehengo udaletxeko eremuan 4 bat metro karratuko eremu publiko bat erabiltzeko eta Udalak konpromisoa hartzen du baimentzeko, legez ezarritako prozedurari jarraituz.
- Alderdiak 2010eko uztailaren 28an sinatutako hitzarmena betetzat ematen dute Euskaltelek gaur egun dagoeneko udalerrian egina duen sare-hedapenarekin, eta berariaz uko egiten diote beste aldeari hari lotutako erreklamazioak egiteari.

Hori dena kontuan hartuta, eta gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez,

ERABAKI DU:

LEHENA:

Euskaltel enpresarekin adostutako hitzarmenak onartzea, bata 2010-07-28an sinatutako hitzarmena aldatzeko, eta bestea nodo optikoa lekuz aldatzeko.

.....//...

4-E-15-01: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

BIGARRENA:

Gai honi buruzko edozein dokumentu publiko nahiz pribatua sinatzeko ahalmena alkate den Garikoitz Aiesta Etxaniz jaunari ematea.

BIGARREN PUNTUA:

ALKATETZAREN DEKRETUAREN BITARTEZ ONARTUTAKO ERABAKI HAUEK BERRESTEA:

- 2015-02-23ko R-15-030 Alkatetzaren Ebazpena: Tasatu motako etxebizitza saltzeko baimena Idoia Redondo andreari.
- 2015-02-23ko R-15-031 Alkatetzaren Ebazpena: Tasatu motako etxebizitza saltzeko baimena Gorane Dominguez andreari.
- 2015-02-23ko R-15-032 Alkatetzaren Ebazpena: Tasatu motako etxebizitza saltzeko baimena Jokin Gabirondo jaunari.

Kontuan hartuta, 3 kasuetan hartutako erabakiak ondorio hauek dituela:

- Tasatu motako etxebizitzaren salerosketarako eskritura publikoan Ezkio-Itsasoko Udalaren alde jasotzen diren eskubideak ez gauzatzea.
- Eskatzaileei baimena ematea etxebizitza saltzeko inongo muga edo limitaziorik gabe.

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez honako hau,

ERABAKI DU:

BAKARRA:

Aipaturiko 3 Alkatetzaren Dekretuak berrestea.

Beterik deialdiaren helburua, 19:30ak direnean, eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, alkate jaunak Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen du. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko martxoaren 9a

.....//...

5-E-15-01: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

O.E.
ALKATEA

.....//...

6-E-15-01: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA